

CARITASEN KANPAINA

2017.eko EKAINaren 18a

CORPUS CHRISTI (A)

KRISTOREN GORPUTZ ETA ODOL GUZTIZ SANTUA

“KARITATE EGUNA”

**“Gauzak bakarrik
EZ DIRA GAUZA”**

Liturgi lagungarriak

Atarikoak:

- ✚ Gogoan izan ezinbestekoa dala lagungarriok, luzera eta hizkerari jago-konez, alkarte bakoitzera egokitzea.
- ✚ Egun honetan, Karidade Eguna ospatzen da; egun honek lehen Eguen Santuz ospatzen zan Senide Maitasunaren Egunaren sena be jasoten dau.
- ✚ Ondo legoke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan partaidetza esanguratsu eta gogotsua izatea.
- ✚ Eukaristiaren liturgia zaintzeko egun aproposa da gaurkoa: oparien aurkezpena (altararen behealdean itziko dogun dirua barru –dirua batu aurretik ez litzateke egokiago izango oharra irakurtea?-); Eukaristia otoitzaren aurreko alkarrizketea abestuta; eukaristia otoitza, erantzunak abestuz; ogiaren zatitzea, “Jaungoikoaren Bildotsa” abesten dan bitartean; jaunartzea...

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Kristoren Gorputz eta Odol Guzti Santuaren eguna ospatzen dogu domeka honetan.

Eleizak ospatzen dauan eukaristia gure fedearen sakramentua da, itxaropenaren oinarria, betiko bizi emongo deuskun sendabidea eta maitasun-iturri eta eskakizuna.

Azken horrengaitik hain zuzen be, gaur Karidade eguna da. “Bizi modua ganoraz eratu” goiburua dauan Caritasek kanpainak dei egiten deusku gizarterko ahulenakaz maitasuna eta itxaropena ospatu daiguzan. Caritasek alkartasuna, senidetasuna eta itxaropena zabaltzeko bide barriak iragarten ditu bizitzako gauzarik onenakaz: hurkotasuna, laguntasuna, entzutea, bihotz-zabaltasuna, konpromisoa...

Caritasek senide alkarte lez hazteko eta Jaungoikoagaz eta hurkoakaz bat egiteko sakramentua dan Eukaristian parte hartzeko egiten deuskun deiari erantzungo deusagu. Pozez ekingo deusagu alkarregaz abestu.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

18 de JUNIO de 2017

CORPUS CHRISTI (A)

SANTÍSIMO CUERPO Y SANGRE DE CRISTO

“DÍA DE LA CARIDAD”

**“Las mejores cosas de
la vida NO SON COSAS”**

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✚ Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- ✚ Este es el Día de Caridad que recoge también el sentido del Día del Amor Fraternal que antes se celebraba el Jueves Santo.
- ✚ Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones de hoy.
- ✚ Hoy es un día apropiado para cuidar especialmente la liturgia eucarística: la presentación de los dones (incluida la colecta, que se deja a los pies del altar -¿convendría no empezar a hacerla hasta que se haya leído pausadamente la monición que la motiva?-), la plegaria eucarística con las aclamaciones cantadas, la fracción del pan mientras se canta “Cordero de Dios”, la comunión...

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos:

En este domingo celebramos la solemnidad del Cuerpo y la Sangre de Cristo.

La Eucaristía que celebra la Iglesia es el sacramento de nuestra fe, fundamento de la esperanza, remedio de inmortalidad y fuente y exigencia de amor.

Precisamente por esto último, hoy es Día de Caridad. La campaña de Cáritas “Las mejores cosas de la vida no son cosas” nos invita a celebrar la caridad y la esperanza junto con las personas más vulnerables de nuestra sociedad. Cáritas anuncia caminos nuevos de solidaridad, fraternidad y esperanza con las mejores cosas de la vida: cercanía, acompañamiento, escucha, gratuidad, compromiso...

En este día acogemos la invitación de Cáritas a crecer como comunidad fraterna y a participar en la Eucaristía, sacramento de comunión con Dios y con nuestros semejantes. Con alegría la comenzamos y cantamos unidos.



SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Jauna, zerutik jatsi dan ogi bizia, zuekin.

DAMU OTOITZA

Jesusen jarrerren antzekoak behar doguz Eukaristia ospatzeko. Aldatu daiala Jaungoikoak gure bihotza:

- Aberatsa izanda gugaitik behartsu egin zinanana: *Erruki, Jauna.*
- Gure Anai egin zinana: *Kristo, erruki.*
- Gure goseak asetzeko janari egin zinana: *Erruki, Jauna.*

OHARRA 1. IRAKURGAIARI (Dt 8, 2-3. 14b-16a)

Israel herriak esperientzia sakona bizi izan eban: basamortuan, urik inondik inora be ez eukan lur-eremu siku-sikuan, Jaungoikoaren hitza hatxetik ateraten dan urak eta Jaungoikoaren opari zoragarria dan manak beste garrantzia dau.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI (1Ko 10, 16-17)

Kristoren Gorputz eta Odolean bategiteak, anai-arreben arteko batasunaren alde egitera garoaz. Eukaristiako ogi eta ardaoa janari dira euren burua eta bihotza zabaldu eta inor, nahiz eta urrunekoa izan, kanpoan itzi gura ez daben persona solidarioentzat.

OHARRA EBANJELIOARI -Alehiaren aurretik- (Jn 6, 51-59)

Bera, zerutik jatsitako ogi bizia dala dino Jesusek, Berak emongo deuskula behin betiko Bizia, Bera dala munduaren Bizia. Kristoren Gorputza jatea, Beragaz jaunartzea, Beragaz eta gainerako gizon eta emakumeakaz bat egitea da, Jaungoikoaganako eta anai-arrebenganako maitasuna bat bera eta banatu ezina dalako.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, pan vivo que ha bajado del cielo, esté con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

Para celebrar la Eucaristía necesitamos unas actitudes parecidas a las de Jesús. Pidamos que Dios transforme nuestro corazón.

- Tú, que, siendo rico, te hiciste pobre por nosotros: *Señor, ten piedad.*
- Tú, que te hiciste nuestro Hermano: *Cristo, ten piedad.*
- Tú, que te hiciste alimento para saciar nuestras hambres: *Señor, ten piedad.*

MONICIÓN a la 1ª LECTURA (Dt 8, 2-3. 14b-16a)

El pueblo de Israel vivió una experiencia fundamental: en el desierto, un sequedal sin una gota de agua, la palabra de Dios es tan necesaria como el agua que sale de la roca y el maná, ese pan maravilloso regalo del Señor.

MONICIÓN a la 2ª LECTURA (1Co 10, 16-17)

La comunión en el Cuerpo y Sangre de Cristo nos lleva trabajar por la unión de los hermanos. El pan y el vino de la Eucaristía son alimento para personas solidarias que quieren agrandar su mente y su corazón para que nadie, aunque venga de lejos, se quede fuera.

MONICIÓN al EVANGELIO -antes del Alehuya- (Jn 6, 51-59)

Jesús se presenta a sí mismo como el pan vivo que ha bajado del cielo, el que es capaz de dar la Vida definitiva, la Vida al mundo. Comer el Cuerpo de Cristo, comulgar con Él, implica una total unidad a su persona y una identificación con las personas, porque siempre van unidos el amor a Dios y a los hermanos y hermanas.

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Egin deiogun otoitz Jaungoiko Aita errukitsuari, bere egundoko maitasuna Jesukristogan agertzera emon deuskunari.

- Eleizearen eta eleiztar guztion alde; Jaungoikoaren maitasunaren lekukotasun ona emon daigun munduan.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Herri, nazino eta erakundeetako agintarien alde; euren erabagietan zuzentasuna eta alkartasuna nagusitu daitezcan.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Caritaseko behargin eta laguntzaileen alde; behin eta berrero dei egin deiguen gure gaitasunak jarri daiguzan eta gizarte honetan jaugokan leku gizatiar eta duina irrikatzen dabenen itzaropena geure egin daigun.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Bidebakokeria, bazterketa, langabezia eta krisiaren gainerako eraginak jasaten dabezcanen alde; euren eskubideak errespetatu daitezcan eta gizarteratzeko aukera izan daien.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Eukaristia ospatzen ari garanon alde; soiltasunez bizi gaitezcan eta alkarregaz biziz, ontasunez, zuzentasunez eta alkartasunez betetako eremuak eratu daiguzan.

Eskatu deiogun Jaunari.

Entzun, Aita, gure otoitza; Jesukristo betiko biziaren ogia irrikatu daigula beti.

Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Karidadearen ordua da. Caritasek dei egiten deusku parte hartu eta itzaropena gauzatu daigun.

Eskerrik asko zuon bihotz-zabaltasunagaitik

ABADEAREN AGURRA (bedeinkapenaren ostean)

Jauna gure artean egotearen poza ospatu dogu.

Ospakizuna amaitu ondoren, eguneroko ogia erdibanatzea jagoku eta gure artean, gure ingurukoaren artean, Kristo benetako Biziaren Ogiaren nahia bizitu behar dogu geure bizimoduagaz. **Zoaze Jaunaren bakean!**

ORACIÓN UNIVERSAL

Oremos a Dios, Padre de misericordia, que nos ha manifestado su inmenso amor en Jesucristo:

- Por la Iglesia y quienes la formamos, para que demos en el mundo un buen testimonio del amor de Dios y de comunión.

Roguemos al Señor.

- Por quienes tienen responsabilidades en los pueblos y naciones, en grandes instituciones y organizaciones, para que prevalezca en sus decisiones el espíritu de justicia y solidaridad y promuevan en todo el bien común.

Roguemos al Señor.

- Por quienes trabajan en Cáritas y colaboran con ella, para que no dejen de llamarnos a poner nuestras capacidades en movimiento, haciendo nuestra la esperanza de quienes anhelan tener un espacio humano y digno en la sociedad.

Roguemos al Señor.

- Por las personas que sufren la injusticia, la exclusión, el paro y demás efectos de la crisis, para que sus derechos sean respetados y puedan integrarse en la sociedad.

Roguemos al Señor.

- Por quienes estamos celebrando la eucaristía, para que vivamos con sencillez y construyamos esperanza, espacios comunes de vida, de benevolencia, de justicia y de solidaridad.

Roguemos al Señor.

Escucha, Padre, nuestra oración, y haz que tengamos siempre hambre de Jesucristo, pan de vida eterna.

Él, que vive y reina por los siglos de los siglos.

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

Es tiempo de Caridad. Cáritas nos invita a participar y hacer posible hoy la esperanza.

Gracias por vuestra generosidad en esta colecta que ahora realizamos.

DESPEDIDA DEL PRESIDENTE (después de la Bendición)

Hemos celebrado el gozo del Señor presente entre nosotros.

Al concluir nuestra celebración, compartamos con todos el pan de cada día y despertemos, entre los que nos rodean y con nuestro vivir, el deseo de Cristo, Pan de la Vida verdadera. **Podéis ir en paz.**



Sakramentuaren «mistikak» alderdi soziala dau, sakramentu-komuninoan Jau-nagaz bat egiten dodalako komulgatzen daben guztiakaz batera: «Ogia bat danez, danok gorputz bat gara, ogi bakarretik hartzen dogu-eta danok», dino san Paulok (1 Ko 10, 17).

Kristogaz bat egitean, bat egiten dogu, aldi berean, Harek bere burua emoten deuten guztiakaz. Ezin dot Kristo bakarrik neuretzat eduki; Kristorena izango naz, bereak diran edo izango diran guztiakaz bat eginda bakarrik.

Alkartasunak neure baitatik ataraten nau Beragana joateko eta, beraz, kristinau guztiakazko batasunera joateko. «Gorputz bakar» bihurtzen gara, existentzia berean batuta.

Orain, Jaungoikoaganako eta hurkoaganako maitasuna bentetan lotuta dagoz: gizon egindako Jaungoikoak danok erakartzen gaitu Berarengana... Maitasunaren gauzatze praktikorik ez dakarren Eukaristia osatu bakoa da berez... Maitasuna da gizon edo emakume baten bizi modua positiboa ala negatiboa dan baloratzeko behin betiko eretxia.

Jesusek bat egiten dau behartsuakaz: gose eta egarri diranakaz, kanpotarrakaz, biluzik, gaixo ala preso dagozanakaz. «Nire seniderik txikien honeetako edozeini egin zeuntsena, neuri egin zeunsten» (Mt 25, 40). Jaungoikoaganako maitasuna eta hurkoaganako maitasuna alkatu egiten dira: apalenarengan Jesus bera aurkitzen dogu eta Jesusengan Jaungoikoa.

Benedikto XVI.a
Deus caritas est, 14, 15 zenb.



Caritas
Bilboko Elizbarrutikoa
Diocesana de Bilbao

La «mística» del Sacramento tiene un carácter social, porque en la comunión sacramental yo quedo unido al Señor como todos los demás que comulgan: «El pan es uno, y así nosotros, aunque somos muchos, formamos un solo cuerpo, porque comemos todos del mismo pan», dice san Pablo (1 Co 10, 17).

La unión con Cristo es al mismo tiempo unión con todos los demás a los que él se entrega. No puedo tener a Cristo sólo para mí; únicamente puedo pertenecerle en unión con todos los que son suyos o lo serán.

La comunión me hace salir de mí mismo para ir hacia Él, y, por tanto, también hacia la unidad con todos los cristianos. Nos hacemos «un cuerpo», aunados en una única existencia.

Ahora, el amor a Dios y al prójimo están realmente unidos: el Dios encarnado nos atrae a todos hacia sí... Una Eucaristía que no comporte un ejercicio práctico del amor es fragmentaria en sí misma... El amor se convierte en el criterio para la decisión definitiva sobre la valoración positiva o negativa de una vida humana.

Jesús se identifica con los pobres: los hambrientos y sedientos, los forasteros, los desnudos, enfermos o encarcelados. «Cada vez que lo hicisteis con uno de estos mis humildes hermanos, conmigo lo hicisteis» (Mt 25, 40). Amor a Dios y amor al prójimo se funden entre sí: en el más humilde encontramos a Jesús mismo y en Jesús encontramos a Dios.

Benedicto XVI
Deus caritas est, nn. 14, 15